GORABIDE
ASOCIACIÓN VIZCAÍNA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
ADIMEN EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

boletín / aldizkaria
# berriak

DICIEMBRE DE 2011 | 2011KO ABENDUA
Nº 205 Zk.

Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | Fax: 94 421 93 84 | gorabide@gorabide.com
autogestores-gorabide.blogspot.com | www.gorabide.com | tiempolibre-gorabide.blogspot.com



Día Internacional de la Discapacidad
Desgaitasuneko Nazioarteko Eguna
pg. 2 or.



Autogestores en el Plan Estratégico
Autogestoreak Plan Estrategikoan
pg. 5 or.



Plazo de solicitud para verano 2012
2012ko uda eskatzeko epea
pg. 6 or.

# ACABA EL AÑO EUROPEO DEL VOLUNTARIADO

# BOLUNTARIOTZAREN EUROPAKO URTEA AMAITZEN ARIDA




## NECESITAMOS FOTOGRAFIAS

Para algunas de las actividades de celebración de nuestro 50 aniversario en 2012, necesitamos fotos que reflejen los cincuenta años de historia de Gorabide. Si tienes alguna imagen de ese tipo, escribe a 50aniversario@gorabide.com o llama al teléfono 94 443 12 10.

## ARGAZKIAK BEHAR DITUGU

2012an gure 50. urteurrena ospatzeko jarduera batzuetarako, Gorabideren historiako berrogeita hamar urteak erakusten dituzten argazkiak behar ditugu. Horrelako irudiren bat baduzu, idatzi 50aniversario@gorabide.com helbidera edo deitu 94 443 12 10 telefono-zenbakira.

# Fevas pasa “de la teoría a la práctica”

## *Una jornada en Bilbao y un stand en Leioa abogan por una defensa más activamente los derechos de las personas con discapacidad*

Con motivo del Día Internacional de las Personas con Discapacidad, Fevas ha organizado una jornada el día 2 de diciembre, para debatir sobre la necesidad de que la lucha por los derechos de las personas con discapacidad intelectual sea más activa. Bajo el título *Derechos de las personas con discapacidad intelectual: de la teoría a la práctica*, el encuentro es un foro en el que personas de los grupos autogestores del País Vasco pueden presentar el trabajo que han desarrollado a lo largo del año sobre cómo defienden sus derechos en el día a día. También se exponen iniciativas dirigidas a fomentar su empoderamiento y su participación en diferentes ámbitos.

### Sensibilización en Artea

Además de organizar esa jornada, el día 3 de diciembre, Fevas instala un puesto de sensibilización y de difusión de sus entidades en una de las galerías del centro comercial Artea, con la participación de personas usuarias de Gorabide. Con ambas actividades, pretende concienciar a la sociedad sobre los derechos de las personas con discapacidad intelectual e incorporarlas como agentes activos en la sociedad.

LECTURA FÁCIL

El 3 de diciembre es el Día Internacional de las Personas con Discapacidad. Por eso, Fevas organiza una jornada el día 2; y pone un *stand* en el centro comercial Artea el día 3. En esas dos actividades, participan personas con discapacidad intelectual.




# “Teoriatik praktikara” igaro da Fevas

## *Jardunaldi bat Bilbon eta stand bat Leioan, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideak modu aktiboagoan defendatzeko*

Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Eguna dela eta, Fevasek, abenduaren 2an, jardunaldia antolatu du, adimen desgaitasuna duten pertsonen eskubideen alde modu aktiboagoan egiteko premiari buruz eztabaidatzeko. Topaketak *Adimen desgaitasuna duten pertsonen eskubideak: teoriatik praktikara* izena izango du. Foro horretan, Euskadiko autogestoreen taldeetako pertsonek beren eskubideak defendatzeko moduari buruz urtean zehar garatu duten lana aurkeztu ahalko dute. Gainera, hainbat alorretan beren ahalduntzea eta partaidetza areagotzeko ekimenak aurkeztuko dira.

### Sentsibilizazioa Artean

Jardunaldiaz gainera, abenduaren 3an, Fevasek bere erakundeen sentsibilizazio eta zabalkunderako postua jarri du, Artea merkataritza-zentroko galerietako batean, Gorabideko erabiltzaileen partaidetzarekin. Jarduera horien bidez, gizartea kontzientziatu nahi da, adimen desgaitasuna duten pertsonen eskubideen gainean, eta pertsona horiek gizarteko agente aktibo bezala sartu nahi dira.

IRAKURKETA ERRAZA

Abenduaren 3a Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Eguna da. Hori dela eta, Fevasek jardunaldia antolatu du abenduaren 2an; eta Artea merkataritza zentroan *stand* bat jarri du, abenduaren 3an. Bi jarduera horietan, adimen desgaitasuna duten pertsonek parte hartzen dute.

GORABIDE boletín / aldizkaria berriak

# 2011 Boluntariotzaren Europako urtea
# Año Europeo del Voluntariado 2011

## Parte hartu eta eraldatu!
## ¡Participa y transforma!

**Durante este año, la Unión Europea ha querido reconocer la labor de las personas voluntarias celebrando el Año Europeo del Voluntariado. A lo largo de todo 2011, se han sucedido las actividades de participación, reconocimiento y puesta en valor de este colectivo tan importante para la acción social. Y desde Gorabide, hemos querido contribuir a ello participando y organizando varias acciones.**

**Aurten, Europar Batasuna pertsona boluntarioen lana aitortzeko, Boluntariotzaren Europako Urtea ospatu du. 2011 urte osoan, gizarte-ekintzarako hainbesteko garrantzia duen kolektibo honen partaidetzarako, aitorpenerako eta kolektiboari balioa emateko jarduerak egin dira. Gorabidek horretan lagundu nahi izan du, eta, horretarako, hainbat ekintza antolatu eta beste hainbatetan parte hartu dugu.**



**Kalitate eta Bikaintasunaren Europar Astea**
*Semana Europea de la Calidad y la Excelencia*



**World-fruit de Bolunta**
*Boluntako World-fruit*




**Bilbao Basket**




**Jornadas sobre participación social y voluntariado en Europa**
*Gizarte-partaidetzarako eta boluntariotzarako Europan jardunaldiak*



**...p solidarioa**
*Lipdub soli...*




**Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna** *Día Internacional del Voluntariado*



**Lipdup solidario**
*Lipdub solidarioa*

## Y ADEMÁS...

Bajo el lema ***¡Cuentas Conmigo!***, la mañana del 5 de diciembre, grupos de personas voluntarias irán por las calles de **Bilbao, Getxo, Basauri, Sestao y Durango**, invitando a la gente a darse un **abrazo solidario** como signo de cercanía, agradecimiento, disponibilidad…

## ETA GAINERA...

***Zurekin bat!*** lelopean, abenduaren 5eko goizean, boluntario taldeak **Bilboko, Getxoko, Basauriko, Sestaoko eta Durangoko** kalean zehar ibiliko dira oinezkoei **besarkada solidarioa** emateko gonbita eginez, betiere, hurbiltasun, esker on, laguntasun... keinu gisa.

# Teleasistencia: un recurso de interés

El servicio público de teleasistencia, gestionado desde julio por el Gobierno Vasco, permite disponer de un servicio de atención telefónica permanente, las 24 horas del día y todos los días del año, para dar respuesta a situaciones de necesidad social o de emergencia, sobre todo, para aquellas personas que pasan la mayor parte de su tiempo solas o son susceptibles de encontrarse en situaciones habituales de riesgo.

### Colectivos destinatarios de este servicio

- Personas con discapacidad intelectual en situación de dependencia reconocida.
- Personas mayores de 75 años que vivan solas.
- Personas mayores de 65 años en situación de dependencia reconocida o en riesgo de dependencia.
- Personas con discapacidad física o sensorial o enfermedad mental en situación de dependencia reconocida.
- Personas en situación de riesgo de aislamiento social.

### Requisitos de acceso

- Estar empadronada en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Disponer de una línea telefónica en el domicilio.
- Tener capacidad, la persona interesada o con la que conviva, para utilizar el dispositivo de teleasistencia.

### Coste del servicio

El precio público del servicio de teleasistencia está fijado en 4 euros mensuales, y existen algunas condiciones específicas que permiten gozar de exención del pago para determinadas situaciones económicas. Por su parte, quien anteriormente usara el Servicio de Teleasistencia de la Diputación Foral de Bizkaia no abonará un precio superior al que ya venía abonando.

### Solicitudes

- Cualquier registro de cualquier oficina del Gobierno Vasco.
- Unidad Social de Base de cada ayuntamiento.
- www.gizartelan.ejgv.euskadi.net.
- Teléfono 012 (Servicio Zuzenean).

# Telelaguntza: interesa duen baliabidea

Telelaguntzako zerbitzu publikoak, uztailetik Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duenak, telefono bidezko etengabeko arreta-zerbitzua izateko aukera ematen du, eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan, gizarteko edo larrialdiko beharrizanei erantzuteko, batik bat, denborarik gehiena bakarrik ematen dutenentzako edo arrisku-egoera ohikoetan egon daitezkeenentzako.

### Zerbitzu honen kolektibo hartzaileak

- Adimen desgaitasuna eta mendekotasun egoera aitortuan dauden pertsonak.
- Bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako pertsonak.
- Mendekotasun-egoera aitortuan edo mendekotasun arriskuan dauden 65 urtetik gorako pertsonak.
- Desgaitasun fisikoa edo sentsoriala edo gaixotasun mentala duten eta mendekotasun egoera aitortuan dauden pertsonak.
- Gizartean isolatuta egoteko arrisku egoeran dauden pertsonak.

### Sartzeko baldintzak

- Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea.
- Etxean telefono-linea izatea.
- Interesdunak berak edo berarekin bizi denak telelaguntzako gailua erabiltzeko gaitasuna izatea.

### Zerbitzuaren kostua

Telelaguntzako zerbitzuaren prezio publikoa hileko 4 euro da, eta zenbait baldintza berezi daude, ordaintzetik salbuesteko ekonomia-egoera batzuen kasuan. Beste alde batetik, aurretik Bizkaiko Foru Aldundiaren Telelaguntza Zerbitzua erabili duenak ez du aurretik ordaindutako preziotik gorakoa ordainduko.

### Eskaerak

- Eusko Jaurlaritzako edozein bulegoko edozein erregistro.
- Udal bakoitzeko Oinarrizko Gizarte Unitatea.
- www.gizartelan.ejgv.euskadi.net.
- 012 telefonoa (Zuzenean zerbitzua).

**Servicio SAIOA Zerbitzua**
Centro Ola BBK Zentroa
(Sondika)
**Tel. 94 453 90 86**

INFORMACIÓN SAIOA
SAIOA INFORMAZIOA



# Isastiko autogestoreek Plan Estrategikoan parte hartzen ari dira, kontrasterako talde gisa

Elkartearen jardueretan, adimen desgaitasuna duten pertsonen partaidetza sustatzeko konpromisoaren barruan, Lanestosako Isasti Egoitzako autogestoreen taldea 2012-2015 aldirako plangintza estrategikoaren prozesuan parte hartzen ari da.

Talde hau egoitzako zortzi pertsonak eta bi laguntzako profesionalak osatzen dute, eta talde honen lana da kontrasterako talde izatea, Gorabideren etorkizuneko jardun ildoak adimen-desgaitasuna duten pertsonen premietara egokitzen direla egiaztatzeko.

IRAKURKETA ERRAZA

Gorabidek uste du adimen desgaitasuna duten pertsonek elkartean parte hartu behar dutela. Hori dela eta, Isastiko zortzi bizilagun beren iritzia ematen ari dira, etorkizunean egin beharrekoa dela eta.

# Los autogestores de Isasti participan como grupo de contraste en el Plan Estratégico

Dentro del compromiso de fomentar la participación de las personas con discapacidad intelectual en las actividades de la asociación, el grupo de autogestores de la Residencia Isasti de Lanestosa está tomando parte en el proceso de planificación estratégica para el periodo 2012-2015.

Este grupo, formado por ocho residentes, con dos profesionales de apoyo, actúa como equipo de contraste para comprobar que las futuras líneas de actuación de Gorabide se adecúan a las necesidades de las personas con discapacidad intelectual.

LECTURA FÁCIL

Gorabide cree que las personas con discapacidad intelectual deben participar en la asociación. Por eso, ocho residentes de Isasti están dando su opinión sobre lo que hay que hacer en el futuro.

## Viaje de la Comisión de I+D+i de Fevas a Inglaterra
## Fevasen I+G+b Batzordearen bidaia Ingalaterrara

Mirko Gerolin, director técnico y de Sistemas de Gorabide, ha participado en un viaje de la Comisión de I+D+i de Fevas a Inglaterra para intercambiar conocimiento y experiencias innovadoras en servicios y políticas sociales del sector de la discapacidad intelectual. Se realizaron reuniones con las entidades Rix Center, Mencap y KeyRing, y con personas responsables del plan estatal Valuing People Now en el condado de Kent, para compartir información sobre estrategias y forma de trabajo que será analizada de cara a valorar la aplicación de iniciativas, explorar alianzas y continuar este proceso de enriquecimiento mutuo.

Mirko Gerolinek, Gorabideko Zuzendari teknikoak eta sistemenak, Fevasen I+G+b Batzordeak Ingalaterrara egindako bidaian parte hartu du, adimen desgaitasunaren sektorearen zerbitzu eta gizarte-politiken gaineko ezagutza eta esperientzia berritzaileak partekatzeko. Rix Center, Mencap eta KeyRing erakundeekin egin ziren bilerak, bai eta Valuing People Now estatuko planeko arduradunekin ere, Kenteko konderrian, lan egiteko estrategiei eta moduari buruzko informazioa partekatzeko; informazio hori aztertu egingo da, ekimenak aplikatzeko, loturak aztertzeko eta guztiok aberasteko prozesu honekin jarraitzeko.

AVISO IMPORTANTE | OHAR GARRANTZITSUA




# Próxima apertura del plazo de solicitud para los programas de verano

En enero, se abre el plazo de presentación de las solicitudes para participar en los Programas de Vacaciones del Servicio de Tiempo Libre y los Programas de Integración (Udalekuak y Udagazteak de la Diputación Foral de Bizkaia, y Campos de Trabajo del Gobierno Vasco) que tendrán lugar en el verano de 2012.

### FECHAS

El impreso de solicitud, que se incluirá en el BERRIAK de ENERO, hay que entregarlo **desde el lunes 9 de enero hasta el martes 31 de enero**. Se puede llevar personalmente, de 9:00 a 13:30 ó de 15:00 a 17:30, a la sede de Gorabide en Bilbao, en la calle Licenciado Poza nº 14, 2º, o enviarlo por correo postal.

# Uda programetarako eskatzeko epea hurrengo hasiera

Astialdiko Zerbitzuak jakinarazten digu urtarrilean zabalduko dela 2011ko udako hiletan egingo diren Oporretako Programetan eta Gizarteratzeko Programetan (Bizkaiko Foru Aldundiko Udalekuak eta Udagazteak, eta Eusko Jaurlaritzako Auzo-Landegiak) parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea.

### EPEA

Eskaera-orria URTARRILEKO BERRIAK aldizkarian bidaliko da, eta aurkezteko epea **urtarrilaren 9tik urtarrilaren 31ra** da. Inprimakia Gorabidek Bilbon duen egoitzara eraman daiteke (Poza Lizentziatua kalea, 14-2), 9:00etatik 13:30era edo 15:00etatik 17:30era. Postaz ere bidal daiteke.

# Plazas libres en informática

El Servicio de Tiempo Libre dispone de plazas libres en los talleres de informática para personas con discapacidad intelectual mayores de 18 años. Se desarrollan en el centro de formación Campus de la calle Pérez Galdós de Bilbao, los miércoles de seis a siete; los jueves de seis a siete; o los viernes de de seis a siete o de siete a ocho, con una cuota de 50 euros.

Para inscribirse, llamar al Servicio de Tiempo Libre de Gorabide: 94 443 12 10 (Elena Hernando).






# Informatikako plaza hutsak

Astialdiko Zerbitzuak plaza hutsak ditu, 18 urtetik gorako adimen desgaitasuna duten pertsonentzako informatikako lantegietan. Bilboko Perez Galdos kaleko Campus prestakuntzazentroan ematen dira: asteazkenetan, seietatik zazpietara; ostegunetan, seietatik zazpietara; ostiraletan, seietatik zazpietara edo zazpietatik zortzietara. 50 euroko kuota da.

Izena emateko, deitu Gorabideko Astialdiko Zerbitzura: 94 443 12 10 (Elena Hernando).

# Ya se pueden solicitar estancias temporales en la Residencia Ola para semana santa de 2012

Quien desee disfrutar una estancia temporal en la Residencia Ola durante la semana santa del próximo año debe tener en cuenta que las solicitudes para acceder a una plaza se deben formular antes de que queden dos meses para la fecha de inicio de la estancia, según establece el decreto foral que regula la tramitación y adjudicación de plazas.

LECTURA FÁCIL

Quien quiera pasar la semana santa en la Residencia Ola, ya puede ir solicitándolo. Hacerlo con tiempo, no asegura la plaza, pero evita quedarse sin opción.

Desde el Servicio SAIOA advierten de que *"realizar la solicitud antes de esos dos meses, aunque no asegure contar con una plaza, evita quedar fuera de plazo y no tener opción en la adjudicación que realiza la Diputación Foral de Bizkaia, aunque se tenga mucha puntuación"*. Algo que ocurre en períodos como semana santa, en los que suele haber más solicitudes que plazas. Por eso, las trabajadoras sociales del servicio se ponen a disposición de las familias para asesorarlas y ayudarlas en todo el proceso de tramitación.

**Servicio SAIOA** Tel. 94 453 90 86.



# 2012ko aste santuan Ola Egoitzan aldi baterako egoteko eskaera egiteko epea zabalik

Datorren urteko aste santuan Ola Egoitzan aldi baterako egonaldiaz gozatu nahi duten pertsonek kontuan hartu behar dute plaza izateko eskaerak, gutxienez, egonaldia hasi baino bi hilabete lehenago egin behar direla, plazen izapidea eta esleipena arautzen duen foru-dekretuak ezartzen duena kontuan hartuta.

IRAKURKETA ERRAZA

Ola Egoitzan aste santuan pasatu nahi duenak eskatzeko aukera du. Sasoiz ibiliz gero, plaza segurua izan ez arren, ez zara aukera barik geratuko.

SAIOA Zerbitzutik hauxe jakinarazi dute: "bi hilabete horiek baino lehenago eskaera eginez gero, plaza ez da ziurtatzen, baina epez kanpo geratu eta, puntuazio handia izan arren, Bizkaiko Foru Aldundiko esleipenetan aukerarik ez izatea ekiditen da".

Horrelakoak Aste Santuan eta gertatzen dira, plaza izateko eskaera gehien egoten den sasoietan. Horregatik, zerbitzuko gizarte langileak familiei aholkua eman eta laguntzeko prest egongo dira tramitazioa egiteko prozesu guztian.

**SAIOA Zerbitzua** Tel. 94 453 90 86.

## LABURRAK BREVES

### Las personas con discapacidad se forman en derechos

Los días 12 y 13 de diciembre, siete autogestores de Gorabide recibirán formación sobre derechos de las personas con discapacidad, en la universidad de Deusto. El objetivo del curso, impartido por personas con discapacidad intelectual, es capacitarles para ser futuros formadores en derechos.

### Desgaitasuna duten pertsonek eskubideen gaineko prestakuntza

Abenduaren 12an eta 13an, Gorabideko 7 autogestorek desgaitasun duten pertsonen eskubideen gaineko prestakuntza jasoko dute, Deustuko Unibertsitatean. Ikastaroa adimen desgaitasuna duten pertsonek emango dute, eta ikastaroaren helburua da gaitasuna ematea, etorkizunean, eskubideen gaineko prestatzaileak izan daitezen.

### Seminario sobre intervención relacional

José Félix Rentería, coordinador del Servicio de Viviendas, y Jorge Martínez, psicólogo del Departamento Técnico de Gorabide, intervinieron en el seminario *La perspectiva relacional en la intervención social*, organizado por el Observatorio del Tercer Sector de Bizkaia.

### Esku-hartze erlazionalari buruzko mintegia

Pasa den hilean, José Félix Renteriak, Etxebizitza Zerbitzuen koordinatzaileak, eta Jorge Martínezek, Gorabideko Sail Teknikoko psikologoak, Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak antolatutako *Ikuspegi erlazionala esku-hartzean* mintegian parte hartu zuten.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a dar apoyo a las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y a sus familias, contribuyendo así a la mejora de su calidad de vida y a la promoción de una sociedad más justa y cohesionada.

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, adimen desgaitasuna duten bizkaitarrei eta haien familiei laguntzera bideratua, bizi kalitate hobea izan dezaten eta gizartea zuzenagoa eta kohesionatuagoa izan dadin lortzeko.

## Gorabidek jai zoriontsuak opa dizkizue

Hiru postal hauekin, Gorabidek laster datozen gabon jaiak zoriondu nahi dizkie inguruan dituen pertsona guztiei. Gure egoitzetako, astialdiko klubetako eta eguneko zentroetako erabiltzaileek egindakoak dira hirurak, eta euren ahaleginaren erakusgarri dira. Beraz, eskerrona adierazi behar diegu, ekimen horretan, zentro bakoitzeko pertsonalarekin batera, parte hartu dutenen gaitasunak ezagutzeko balio duelako.

**ZORIONAK!**




## Gorabide os desea felices fiestas

Con estas tres postales, realizadas por personas usuarias de nuestras residencias, clubes de tiempo libre y centros de día, Gorabide quiere felicitar las próximas fiestas navideñas a todas las personas de su entorno. Son reflejo del esfuerzo, la creatividad y el empeño que han demostrado. Por eso, es de agradecer su participación, que además sirve para demostrar las capacidades de quienes han tomado parte de esta iniciativa, con la colaboración del personal de apoyo de cada centro.

**¡FELICIDADES!**

# agenda diciembre abendua



## AUTOGESTORES AUTOGESTOREAK

**JÓVENES | GAZTEAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 13 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 18:00

**ADULTOS | HELDUAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 20 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 18:00

**LOS ELEGANTES | DOTOREAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 14 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:30

**GURE AHOTSA | NUESTRA VOZ**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 21 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:30

## AGRUPACIONES ELKARTEAK

**DEUSTO-SAN IGNACIO** — Junta Batzorde
*Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto*
**Día / Eguna** 6 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 19:30

**ERMUA** — Junta Batzorde
*Aldapa, 2-bajo A/ etxabe A - Ermua*
**Día / Eguna** 5 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 19:30

**MUNGIALDEA** — Comisión Komisio
*Atxurizubi, 12 - Mungia*
**Días / Egunak** los martes / astearteak — **Hora / Ordua** 20:00

**SANTURTZI** — Comisión Komisio
*Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi*
**Día / Eguna** 28 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 19:00

### AGRUPACIÓN DURANGALDEA

La Agrupación Durangaldea invita a las familias de la zona a su encuentro de final de año, un espacio distendido donde presentarán las actividades realizadas por la comisión en 2011 y ofrecerán un lunch con motivo de las fiestas navideñas.

**Lunes 19 de diciembre, 19:00 h. Pinondo Etxea (Durango)**

### DURANGALDEKO ELKARTEA

Durangaldeko Elkarteak bertako familia guztiak gonbidatzen ditu bere urte amaierako elkarraldira. Lagun arteko giroan, batzordeak 2011n egin dituen ekintzak aurkeztuko ditu eta, gabonetako jaiak hur daudela eta, luntxa ere egongo da.

**Abenduaren 19a, astelehena, 19:00 Pinondo Etxea (Durango)**